

KIMIKA FAKULTATEKO 50. URTEURRENAREN KARTEL ETA LELOAREN LEHIAKETA

1. Nork har dezake parte?

2023/2024 ikasturtean Donostiako Kimika Fakultateko kide den edonork (gradu edo master ikasleak, doktoradutza programetan matrikulatutako ikasleak, IRI (PDI), TEKAZEL (PTGAS)).

2. Helburua

Kimika Fakultateko 50. urteurreneko ekitaldi ofizialak sustatzeko erabiliko den kartel ofizial bat diseinatzea. Horrez gain, urteurrenerako lelo bat sortzea du helburu lehiaketa honek.

3. Arauak

Kartelean unibertsitateak dagoeneko diseinatu duen logotipoa agertu behar da, bi aukeretatik batekin nahiko da.



KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

50
URTE
AÑOS



KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

50
URTE
AÑOS

Kartelaren dimentsioak A3 (29.7 x 42 cm).

Leloak ezin ditu 5-6 hitz baino gehiago izan (salbuespenak onartu daitezke).

Lehiaketaren epaimahaia Kimika Fakultateko Komunikazio Batzordeko kideak izango dira.

4. Aurkezpena eta lan kopurua

Pertsona bakoitzak gehienez 3 kartel edo/eta 3 lelo aurkeztu ahal izango ditu.

Lana aurkezteko azken eguna **Maiatzaren 15a** izango da.

Proposamenak hurrengo helbide elektronikora bidali:
kimika.fak.komunikazioa@ehu.eus

Parte hartzaileak aitortzen du bidalitako lanaren egilea dela.

5. Saria

Irabazleak maiatzaren 24an ospatuko den Kimika Fakultate egunean emango dira ezagutzera.

Kartel onenaren irabazleak eta baita lelo onenaren irabazleak ere, bale bat eskuratuko du EHU dendan erabiltzeko.

6. Jabetza

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du Kimika Fakultateari osorik lagatzen zaizkiola aurkeztutako kartela/leloa erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko, eraldatzeko edo aldatzeko eskubideak.